LAZKAOKO UDALERRIAN DAUDEN BERDEGUNE, PARKE, LORATEGI, PASEALEKU ETA ZUHAIZTIAK ZAINDU ETA MANTENTZEKO LANEN KONTRATAZIOA, ARMONIZATUTAKO ERREGULAZIOARI LOTUTAKO PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ, ESLEITZEKO LEHIAKETA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA.

Agiri honen xedea 1. Eranskinean agertzen den dokumentazioaren barne dauden zehaztutako gune bakoitzaren mantenua da; guneen sailkapena honako hau da:

A: Jadanik badauden berdeguneak, loreontziak eta ilaran jarritako zuhaitzak. Sailkapen honen barruan igerilekuaren inguruko gunea barne dago; honek berezitutako tratamendua izango du.

B: Kontsolidatu gabeko berdeguneak.

Zona A	
CAF ingurua	4.653,94
Senpereko biribilgunea	2.585,65
Ibabe	241,63
Hiribarren 15 ingurua	704,86
Hiribarren 9 errekaldea	33,73
Lazkaomendiko biribilgunea	1.888,65
Arsatik biribilgunera	474,64
Arruabarrena ingurua	582,58
Monjak - Iturgaitzagako kruzea	289,99
Iturgaitzaga	1.628,54
Eliza	152,18
Lazkao Txiki zelaia	121,20
Euskaltegi aurreko 3 jardinak	193,69
Euskaltegi ingurua	201,92
Bariante aldemena (Areso-Euskaltegi)	1.492,11
Bariante aldemena - Antzalde	2.789,64
Udalaren almazenaren atzekaldea	245,69
Antzalde	3.553,50
Elosegi 20 atze	22,85

Areso 4-6	52,56
Aresoko apakalekua	1.729,93
Errekako paseoa Areso kalean	883,09
Areso 24	249,97
Areso 32-48	367,95
San Inazio	1.778,22
Kiroldegia	128,43
Mikelar	1104,69
Untzindegi baserri ingurua	451,12
Hirigoien kalea	58,71
Uhaitz 3 atze	62,14
Uhaitz	245,12
Mendizabal baserri - rotonda artekoa	980,58
San Prudentzio ermita	554,43
San Prudentzio	234,86
San Jose	5.992,24
San Prudentzio ermita Zelata aldea	504,42
Santa Magdalenako rotonda	838,17
Santa Magdalena	528,54
Zubizkitza San prudentzio aldea	118,27
Jose Lasako parkea	1.163,48
Zubizkitza gerontologiko inguruak	1.673,23
Hirigoien 75-87	599,84
Larreategi ingurua	314,05
Gurutze 1	135,64
Gurutze 3-6	1.716,09
Gurutze 9-10	1.322,51
Hirigoien 48-58 atze	2.367,42
Kanpandegiko biribilgunea	1.265,37
Esparru	283,93
	49.561,99

Zona B

Dukearen parkea	12.646,27
Lartxai ingurua- Lazkaomendi	525,00
Errekako ertzak	2.675,00
Zubierreka	4.071,66
Meandroa	5.537,74
Hiribarren atze	193,00
Ibabe - bariante aldekoa	621,89
Lazkaomendiko ermita ingurua	140,00

Futbol zelaiko pista ingurua	823,98
Anbulategi atzea	617,24
Teniseko kantxa	778,58
Beneditarrak eta Hiribarren 1 arteko errekarako pasabidea	162,96
Futbol zelai gaina	2.639,86
Futbol zelaiko aparkaleku ingurua	1.854,28
Kanpandegiko poligono industriala	8.969,79
	42.257,25

LEHENENGOA.- <u>ESLEIPENDUNAK UDALARI EGIN BEHARREKO ZERBITZUAK BARNE DITUEN ZEREGINAK.</u>

Kontratistak egin beharreko zerbitzuen barruan kontratatutako berdeguneak hartuko ditu bere osotasunean ondoko lan hauek bete beharko dituelarik:

1. - Kontserbazioa.
2. - Birjarpena.
3. - Inausketa.
4. - Landaketa eta bestelako lanak.
5. - Udal igerilekuetarako tratamendu berezia.
6. - Hondakinak kentzea.

Enpresa esleipendunak, kopuruan zein prestakuntzan egokia den pertsonala erabiliz, beti bere gain hartuta eta behar den tresneria erabilita, dagokion garaian eta eran ondoren aipatzen diren gutxieneko lanak burutu beharko ditu:

<u>1.- KONTSERBAZIOA</u>

Lan hauek dagokion lekuaren baldintzak kontuan hartuta, berdeguneak egoera onean eta ornamentazio maila mantentzeko egingo dira. Honako lan hauek zehazten dira:

1.1. -Ureztapenak.

1.2. -Belarra moztea.

1.3. -Belarra birlandatzea.

1.4. - Guraizez zein heskai-moztekoaz egindako inausketa eta mozketak.

1.5. - Ongarritze

1.6. - Aitzurtu eta jorratu.

1.7. - Eskuaretzea.

1.8. - Garbitu

1.9. - Tratamenduak fitosanitarioak.

1.10. - Heskai eta belarraren itxura mantendu.

1.11. - Oihanpeak garbitu eta orbelak jaso.

1.1.- Ureztaketak

Landaredia hainbatero ureztatuko da eta egunero urte sasoiak hala eskatzen duenean. Kontuan hartuko dira egoera edafoklimatikoa eta landare bakoitzaren ezaugarriak bakoitzari bere garapenerako dagokion ur kopurua zehazterakoan.

Landaredian honako elementu hauek sartzen dira:

- Birlandaketak.
- Garaiko landareak.
- Aurreko hiru urteetan landatu edo txertatutako zuhaixkak
- Azkeneko hiru urteetan sartutako zuhaitz berriak
- Loreontziak.

Ureztaketak, mahukak eta ihinztagailuak erabiliz egingo dira. Ureztatzeko unerik aproposenak goizeko lehen orduak eta iluntzeko azkenak izango direlarik.

Enpresa esleipenduna arduratuko da dauden ureztatze-sare automatikoak eta eskuzkoak kudeatzeaz, baita instalatzen diren sare berriak kudeatzeaz ere. Ordeztu eta/edo konpondu behar diren instalazio horietako elementuak eta materialak Udalaren kontura izango dira, baldin eta esleipendunari ezin bazaio egotzi akatsa. Enpresa esleipendunaren ardurapean egongo da egun dauden zein geroago jar daitezkeen ureztapen sareen kudeaketaz.

Erabiltzen den uraren kargua Udalak hartuko du; enpresa esleipendunak ez du inoiz beharrezkoa dena baino ur gehiago erabiliko; era berean, gaizki itxitako iturriek edo matxuraren batek sortutako galerarik ez izatea zaindu beharko du.

Aurreko paragrafoan jarritakoa ez- betetzearen ondorioz ur galerarik bada eta higadurak zein beste kalterik sortuko balitz enpresa esleipendunaren esku geldituko da kaltetutako gunea bere hasierako egoerara itzultzea. Izandako ur galeraren kostua ere bere gain hartu beharko du.

1.2.- Belarra moztea

Belarra kaltetua ez izateko zein belardiaren itxura polita mantentzeko behar duen maiztasunaz egingo da. Hau dela eta, honako garaiera mailak ezartzen dira:

- A gunean ezin da 10 cm-tik gorakoa izan.
- B gunean ezin da 18 cm-tik gorakoa izan.

Lan honen barruan sartzen da belarra biltzea eta ebakinen garbiketa egunean bertan egitea mulching delakotik datozten hondakin begetalak izan ezik. Lan hau mozketa egiten den egun berean egingo da, ezinbesteko kasuak salbu. Kasu honetan, Udalari gertakariaren berri eman eta zikintasunik ez sortzeko neurriak hartuko dira.

1.3.- Soropilen birlandaketa

Soropiletako gune higatuak edota belarrik gabekoak (edozein arrazoirengatik) agertzen badira udazken eta udaberri hasieran soropila birlandatuko da. Egin beharreko lanak nahi den emaitza lortu arte egin behar diren guztiak izango dira.

1.3.1. Behar adina erregadio eta mozketa, Udaleko Zerbitzu Teknikoen iritziz berrerein beharreko eremuko belarra berreskuratutzat jo arte .

1.3.2. Itxiturak jartzea guztiz ezarri arte, hala badagokio.

1.4.- Guraizez zein heskai-moztekoaz egindako inausketa eta mozketak

Landareentzako egokiena den garai eta eran egingo dira; era berean, itxura ere kontuan hartuko da.

Zuhaixka edo heskaiak dauden guneetan estali gabeko zuloak edo azalerak baldin badaude (arrazoia dena delakoa izan), dagokion heskaia edo zuhaixka birlandatuko da, horretarako egokiena den garaian.

Egin beharreko lanak egin beharko dira lortu nahi den emaitza lortzeko.

A guneaK:

- Zuhaixkak: urtean hiru mozketa gutxienez egingo dira.
- Loreontziak: Hala behar izanez gero, landare bakoitzaren ezaugarrietara egokitutako mozketa.

B guneak:

- Izerdi berrian duen garaian gutxienez bi mozketa egingo dira.

Soropilen mugetan, honek bideak lorez zein landatutako guneak jan ez ditzan tarteka soropila moztuko da eta, behar izanez gero, sustraietatik erauziko delarik.

1.5.- Ongarritzea

A gunea: Soropilen ongarritzea urtean behin gutxienez egingo da, 1 kg/m2 ongarri organiko edo 60 gr/m2 ongarri mineral botata.

Loreontziak eta garaiko loreak:

Landaketa burutzean 2 kg/m2 ongarri organiko botako zaie.

Zuhaitzak:

Landaketa burutzean 10 kg/m3 ongarri organikodun lurra botako zaie.

Zuhaixkak:

Landaketa burutzean 3 kg/m3 edo metro linealeko 3 kg ongarri organikodun lurraz egingo dira.

1.6.- Aitzurtu eta jorratu

A guneko soropiletan belar txarrak zainketa kulturalez zein eskuz kenduko dira. Herbizidarik erabili behar izanez gero Udal Zerbitzu Teknikoek zein kasutan egin daitekeen erabakiko dute

Loreen zurtoinak sarri aitzurtuko dira belar txarrik ez egoteko eta lurraren egitura egokia mantentzeko. Maiztasuna tokiko eguraldiak aginduko du.

Zuhaitz-txorkoetako belarrak beharrezkoa denean erauziak izango dira inoiz ez moztuak. Udal Zerbitzu Teknikoen oniritziz herbizidak erabili ahal izango dira.

Zuhaitzei adaxkak kenduko zaizkie zuhaitzaren enborretik gorako 30 cm duen zirkuluan.

1.7.- Garbiketa

Enpresa esleipendunaren agindupean dagoen pertsonalak kontratupean dauden gune guztien garbiketa zorrotz zaindu beharko du; jaiegunen biharamunean bereziki.

Hauen zeregina zera izango da: belar txarrak kendu, orbelak eta inausketa zein mozketek sortutako hondakinak garbitu. Era berean, bertan egon daitezkeen zaborrak zein berdegunearen inguruan egon daitezkeen belar txarrak ere kendu beharko dira.

Esleipendun enpresaren eginbeharra ez da garbiketa eta zaborren biltzera bakarrik mugatzen. Honetaz gain, hauek guztiak jaso egin beharko ditu eta izendatutako konpost gunera eraman beharko ditu.

Zuhaitz-txorkoen garbiketa ere egin beharko du.

Berdegune hauetan kultur, kirol edo edozein motatako ekitaldirik egiten bada, ezinbestekoa izango da bukatu bezain laster garbiketa burutzea, honek ez du hitzartutako prezioaren gorakadarik ekarriko.

1.8.- Landare osasunerako tratamenduak

Esleipendunak, dagokion garaian, ager daitezkeen gaixotasun eta izurriteen aurkako tratamenduak egitera behartuta egongo da, harik eta garatutako gaixotasun edo izurrite hori erabat desagertu arte. Tratamendu horietan erabiliko diren bitarteko eta produktuak eraginkorrak, ez-toxikoak eta gizakia, animalia eta ingurugioarentzat kaltegarriak ez direnak izango dira.

Aplikazioaz arduratzen diren langileek Produktu Fitosanitarioen Manipulatzailearen Txartela izan beharko dute, eta enpresak eta bere baliabide mekanikoek tratamendu fitosanitarioen ekoizle eta operadoreen erregistroan izena emanda egon beharko dute.

Tratamenduak egiteko ordutegia zehazterakoan auzokoei kalte gutxien egien dien uneak aukeratuko dira. Era berean, haizerik ez dagoen garaian egingo dira.

Urte bukaera baino lehenago hurrengo urterako aurreikusten diren tratamenduen planifikazioa aurkeztuko da, bertan produktu bakoitzaren fitxa teknikoa izango delarik. Planifikazio honek Udalaren onarpena jaso beharko du.

1.9.- Heskai eta soropilen ezarpenen kontserbazioa

Esleipendun enpresak egun heskai eta soropilek duten ezarpena mantenduko du, modu naturalez, erabilpen okerrez umeen jolasez, jende gehiegiren pilaketez edo lanak oker egiteagatik sortutako kalteak bere gain hartu beharko ditu.

1.10.- Oihanpearen garbiketa eta orbelen bilketa

Gune bakoitzeko zonetako sasi, egurrak eta orbelak garbi egongo dira sute eta izurriterik gerta ez dadin, zuhaitz txikiak eta zuhaixkak errespetatu beharko dira.

2.- BIRJARPENA

Jardun hauetan honako elementu hauek ordezkatu, berritu edo birlandatuko dira: edozein motatako landareak, garaiko landareak, zuhaixkak, bestelako zuhaitzak eta kalteren bat izan duten soropilak. Eginbehar hauek guztiak empresa esleipendunak hartu beharko ditu bere kargu landarediaren egoera txarra zein ihartzea ureztaketa, mozketa, tratamendu eza edo esleipendun enpresak erak egindako birjarpen okerren ondorioz izaten badira.

Arestian aipatutakoen ondorioz izan ezean, Udalak hartuko ditu bere kargu, berak hornituta edo, bestela, esleipendun enpresak berak ordainketa burutu aurretik ordain-agiri guztiak Udalari emanda.

Birjarpena beharra ikusi bezain laster egingo da, eta landare mota horren garaia kontuan hartuta.

Jarraipen bileretan egindako birjarpenen hileko txostena aurkeztuko da.

2.1.- Zuhaiztiak

Zuhaitz arriskutsuak moztuko dira, beste batzuetatik oso hurbil daudenak, haien garapen egokia zailtzen dutenak edo ibilgailuen eta pertsonen zirkulazioa zailtzen dutenak. Baita Udaleko Zerbitzu Teknikoak moztea egokitzat jotzen dutenak ere.

Mozketa egin aurretik, enpresa esleipenduneko teknikariak mozketaren justifikazio-txosten bat egin beharko du, eta bertan, besteak beste, alearen arriskugarritasuna egiaztatuko da.

Esleipendunaren kontura izango dira zuhaitzak moztu eta hondakinak bere ardurapeko eremutik atera eta tratatzeko lanak, Hondakinak Kudeatzeko Planarekin bat etorriz, zerbitzu teknikoek beste norako edo erabilera bat adierazten dutenean izan ezik, baita motzondoak kendu edo birrintzeko, zuhaitzak ordezteko edo berdeguneak birjartzeko, lurrak berdintzeko eta belarra ereiteko lanak ere.

Zuhaitzaren tamainagatik edo kokapenagatik ezohiko baliabideak erabili behar badira, Udalaren kontura izango dira.

Zuhaitzak eta zuhaixkak landatzeko lanak enpresa kontratistak egin beharko ditu, Udaleko Zerbitzu

Teknikoen jarraibideen arabera. Zerbitzu teknikoek kasu bakoitzean adierazi beharko dituzte egokitzat jotzen dituzten babesak, zuzenketak, lur-aldaketak, landaketa-garaia eta abar.

Instalazioak Udalaren kontura izango dira, eta Udalak edo, hala badagokio, enpresa esleipendunak hornitu ahal izango ditu, ordainketa burutu aurretik dagozkion albaranak eman ondoren.

2.2.- Lore parterreak

Garaiko landareei dagokienean birlandaketa udazkenean eta udaberrian egingo da eta esleipendunaren kargu izango da. Guztira 8.000 lunitate landatuko dira.

Udaleko zerbitzu teknikoek finkatuko dute zein landare mota sartu behar den eta landareen banaketa, lore-parterretan, kanpoko lorontzietan eta udal-eraikinetako (udaletxea, Kultur Etxea eta Orobione) balkoietan dauden lorontzietan banatuko dira.

Landareak gutxienez 10,5eko loreontzian landatuta aurkeztuko dira, eta sustraituta eta laster loratzen hasteko moduan egongo dira. Landaketaren gutxieneko dentsitatea 20 landare/m2 izango da.

Era berean, zerbitzu horiek lore-parterre gehiago, gutxiago edo berriak sortu ahal izango dituzte, eta enpresa kontratistaren kontura izango dira kasu horiek gauzatzeko eginbeharrak. Kasu horretan, instalazioak Udalaren kontura izango dira, eta Udalak edo, hala badagokio, enpresa esleipendunak eman ahal izango ditu, dagozkion albaranak eman ondoren, ordaintzeko.

3.- INAUSKETA

Inausketa lanak urriaren erdialdean hasiko dira. Mozketak garbiak izango dira eta moztutako adarrak handiak direnean beharrezko tratamenduak emanda..

Kontuan hartu beharko da:

a) Koniferak inausi beharrean, adarren puntak matxardez eutsi eta ihartutako adarrak kendu behar dira.

b) Ahal dela, 10 cm baino lodiera handiagoko adarrak ez dira moztuko; hala gertatuko balitz, fungizida- orbaintzaile berehala emango zaie.

c) Udaberrian ateratzen diren zuhaitz eta zuhaixkak udaberrian loratu ondoren inausiko dira.

d) Udan loratzen diren zuhaitz eta zuhaixkak neguan inaus daitezke.

e) Apaingarri diren zuhaixkak eta tamarindoak udazkenean inausiko dira.

f) Topiaria erakoak, ahal dela, izerdi berriko garaian eta hiru zentimetro baino gehiago dutenean inausiko dira.

g) Inausketaren helburuetako bat landareak ahalik eta aireztapen eta eguzki gehien izatea izango da.

h) Kentzen diren adarren mozketa euren hasiera-hasieratik egin beharko da.

i) Inausketaren bidez ihartutako zati eta adar guztiak kendu beharko dira.

j) Garaiko landare eta zuhaixkek dituzten lore ihartuak kendu egin behar dira, fruitu apaingarria dutenak izan ezik.

Hiru inausketa mota bereizten dira.

- Osatze-inausketa
- Mantentze-inausketa
- Berritze-inausketa

Osatze-inausketa

Zuhaitz gazteetan eta sartu berrietan egiten da zuhaitzak indarra har dezan adarrak eta hostaila eusteko.

Mantentze-inausketa

Zuhaitzak berezko ezaugarriak (itxura, loraketa...) manten ditzan egiten dena da, kokatuta dagoen lekuak sortzen dizkion mugak kontuan hartuta.

Berritze inausketa

Ihartutako adarrak eta azken urteko adarrak kentzera mugatzen da, aireztapen egokia lortzeko.

Jardun hauek Udal Zerbitzu Teknikoek landare, leku eta ezaugarri bakoitzerako zehaztutako inausketarako urteko plangintzaren menpe egongo dira.

Inausketarako erabiltzen diren lanabesak egunero desinfektatuko dira.

Urteko edozein garaitan ikuskatu egingo dira loturen zurkaitzak eta puskatuta zein ustelduta daudenak aldatu egingo dira. Zurkaitzak eta lokarriak Udalak berak horni dezake, honek hauen konponketa egokia gainbegiratuko du.

Lan horiek altueran egiteko, enpresa esleipendunak beharrezko jasogailua edo baliabide osagarriak izan beharko ditu.

4.- LANDAKETA ETA BESTELAKO JARDUNAK

a) Esleipendun enpresak, Udalak hala eskatuta, Udalari uzten zaizkion urbanizazioetako berdegune, lorategi eta zuhaiztien aldez aurreko txostena egin beharko du.

b) Udalak kontratupean dauden landareetan eraginik izango duen obrarik egin beharko balu eta Udal Zerbitzu Teknikoek hauek lekuz aldatzea erabakiko balute, leku aldatzea esleipendun enpresak egin beharko luke. Zuhaitzaren tamaina edo kokapenarengatik bitarteko bereziak erabili beharko balira hauek Udalaren kargu egongo lirateke.

c) Enpresa esleipendunak udal honek duen landare-elementuen inbentarioa mantendu beharko du.

e) Elurtea denean, kontratu honi atxikiturik dagoen langileria Udalaren esanetara egon beharko du lanjardun osoan egin beharreko lanei erantzuteko, beti ere udal Zerbitzu Teknikoen agindupean. Elurtearen ezaugarrien arabera, Udalak aldatu egin dezake langileen lan ordutegia, baita lan jardunaren iraupena ere.

Elurtearen ezaugarrien arabera, Udalak. langileen ordutegia eta lan- jardunaren iraupena aldatzea izango ditu.

5.- UDAL IGERILEKUEN TRATAMENDU BEREZITUA

Urtero igerilekuaren garaia bukatu bezain laster landa azaleraren hobekuntza lanak burutuko dira.

Egin beharreko lanak hauexek izango dira:

a) Denboraldia amaitzean, urriko lehen astean:

   a. Berrereitea.

   b. Silize-harea errezebitzea (8-12 kg/m2) eta lurra nibelatzea.

b) Igerilekuak ireki aurretik eta behar besteko aurrerapenarekin, hau da, apirila amaitu baino lehen:

   a. Eskuz edo mekanikoki jorratzea.

   b. Eskarifikatzea.

c. Abonatua.

d. Berrereitea, beharrezkoak diren kasuetan.

Tratamendua egin ondoren, dagokion txostena aurkeztuko zaie Udaleko Zerbitzu Teknikoei.

Belarra moztea:

Igerilekuetako soropila A gunean ematen den maiztasun berarekin moztuko da, igerilekua irekita ez dagoenean. Igerileku garaia behin hasitakoan soropila moztuko da behar den maiztasun guztiarekin soropilaren altuera 6 zm-takoa baino altuago izan ez dadin eta ezin izango da 10 egun baino gehiago pasa mozketa artean.

Ongarritzea:

Urtean bitan ongarrituko da: apirieanl eta irailean.

Ureztatze sistema:

Enpresa kontratista arduratuko da udal ureztatze-sistemak erabiltzeaz eta kudeatzeaz. Enpresa kontratistak ondo erabiltzen dela eta behar bezala funtzionatzen duela zainduko du, eta sor daitezkeen gorabehera edo kalte guztien berri emango die udaleko zerbitzu teknikoei.

Hilaren amaiera baino lehen egindako jardueren eta egoeraren txostena aurkeztuko da.

Era berean, enpresa esleipenduna arduratuko da martxan jartzeaz eta deskonexioaz, udan belarra egoera ezin hobean egon dadin.

Lan horien hondakinak enpresa esleipendunak zehaztutako zabortegira, zentrora edo kokapenera eramango dira, eta enpresa esleipendunaren kontura izango dira, betiere hondakinak kudeatzeko araudia betez.

BIGARRENA.- OBRA BERRIA ETA HOBEKUNTZAK

Esleitutako gunean Udalak obra berriak zein konponketak egiteko askatasun osoa izango du.

Horretarako, lorategi, soropil, zuhaitzak landatu, garraiatu, eserlekuak jarri, iturriak, jolas parkeak, pasealekuaren zorua aldatu, ureztapen nahiz argiztapen sistema berriak jarri, hobetu edo egoki ikusten dituen lanak egin ahal izango ditu. Hauen guztien mantentze lana esleipendunak hartu beharko ditu.

Enpresa esleipendunak kontserbatu behar diren elementuak zein gunearen ezaugarriak aldatuko dituen obra berririk edo hobekuntzarik ezin izango du burutu Udalaren baimenik gabe; dena den,

proposamenak aurkeztu ahal izango ditu.

Udalak hala ikusten badu, zona batzuen birmoldaketa edo hobetzea proposa dezake. Horretarako, esleipendunari proposamenak eska diezazkioke. Dena den, landareak, apaingarriak eta bestelako materialak Udalaren kargu egongo dira, egin beharreko lanak esleipendunaren esku geldituko dira.

Esleipendunak, enpresaren iritzi teknikoaren arabera, hurrengo urtean egin beharreko jarduketei buruzko txosten bat aurkeztuko du, apaingarriei, segurtasunari, alderdi funtzionalari eta dauden eraikuntzen afekzioei dagokienez. Aipatutako txostena urteko azkeneko hamabostaldian aurkeztuko da.

HIRUGARRENA.- <u>PERTSONALA</u>

Enpresa esleipendunak une eta urte sasoi bakoitzean behar diren langileak izango ditu kontserbazio-lanak behar bezala egiteko. Hala ere, gutxieneko langile batzuk izan beharko ditu (zuzeneko langileak: 3 langile), eta langile horiek erabat islatuta eta justifikatuta geratu beharko dute eskaintzan. Lanera ez agertzeak, bajak, baimenak edo beste arrazoi batzuk direla medio ordezkatu beharko ditu, eta Lazkaoko Udalari berehala jakinarazi beharko dio aldaketa ororen berri.

Urte bakoitzeko apirilaren 1etik uztailaren 31ra bitartean, langile berri bat gehitu beharko da. Beraz, aldi horretan kontratistak bermatu beharko du kontratuari atxikitako gutxieneko langileak 4 langilekoak izango direla.

Zerbitzua urte osoan emango duten zuzeneko langileak izango diren hiru (3) pertsonekin, oporrak txandaz txandako sistema baten bidez planifikatuko dira. Nolanahi ere, ez dira inoiz bi (2) langile baino gutxiago egongo lan-txanda bakoitzean eta hiru (3) baino gutxiago apirilaren 1etik uztailaren 31ra bitartean.

Enpresa kontratistak bere plantillan hartu beharko ditu zerbitzua ematen duen enpresak betetzen dituen langileak, Administrazio Pleguaren V. Eranskinean, Subrogatuko diren langileak, zerrendatzen direnak.

Udalari jakinaraziko zaizkio plegu honetan aipatzen diren eginkizunak betetzeko gaur egun kontrataturik dagoena ordeztu nahi duten langileen izenak, kategoriak eta gainerako inguruabarrak. Udalak proposatu ahal izango du proposatutako langileak aldatzea, baldin eta ez bada egokia kontrataren xede den zerbitzurako.

LAZKAOKO UDALA

Lizitazio hau indarrean dagoen bitartean zerbitzuan sar daitekeen langile berri orok honako baldintza hauek bete beharko ditu: nahitaez egiaztatu beharko du Lanbide Heziketako titulazioa, gutxienez erdi-mailakoa, lorazaintzan, paisajismoan edo antzekoren batean, edo lizitazioaren xede den kontratuaren garapenarekin zerikusia duen prestakuntza. Eskaintzan argi eta garbi adierazi beharko da zerbitzuaren organigrama, eta bertan argi eta garbi zehaztu beharko dira langileak, haien kualifikazioa eta betetako lanpostuak, ordutegiekin eta lan bakoitzari eskainiko zaion zerbitzua hobeto definitzeko aukera Kontratistak, nolanahi ere, baldintza-orriko espezifikazioak bete behar dituenez, bere proposamenean aurreikusitako langile eta baliabideekin ez badu prestazioa eskatutako kontratu-kalitatearekin egiten, bitartekoak zabaldu beharko ditu, eta horrek ez dio eskaintzako prezioak aldatzen utziko.

Udalak, Udaleko Zerbitzu Teknikoen bitartez, enpresa kontratistari eskatu ahal izango dio zerbitzutik bereizteko edo dagokion zehapena jartzeko, langileek horretarako arrazoia ematen dutenean ematen duen beste edozein inguruabar: kontserbazio orokorra.

Lan-ordutegia goizeko lanaldikoa izango da, Udal Zerbitzu Teknikoen ordutegiarekin bateragarria, elurteen edo izozte handien kasuan izan ezik, eta kasu horietan aldatu egin daiteke.

Langileek behar diren baliabideak izango dituzte Udaleko Zerbitzu Teknikoek uneoro lokalizatu ahal izan ditzaten, edozein gorabeheraren aurrean.

Altuerako lanak egiteko, altxatze-bitarteko egokiak erabiliko dira, eta behar bezala homologatuta egongo dira; ezingo dira egin langileen osotasuna arriskuan jartzen duten baliabideekin.

Langile guztiek nortasun-txartel bat izan beharko dute. Enpresa esleipendunak konpromisoa hartzen du langileak Gizarte Segurantzan behar bezala alta emanda izateko eta Gizarte Segurantzako kuotetan langile horiei buruzko legezko betebehar guztiak betetzeko. Era berean, Udalaren esku jarri beharko ditu aurreko eskakizunak justifikatzeko behar diren agiri guztiak.

Enpresa esleipendunak teknikari bat izendatu beharko du kontratua koordinatzeko arduraduna (Zerbitzu burua) Pertsona horrek langileen buru izan beharko du, eta basoko, agronomiako, biologiako, lorezaintzako edo paisaiako teknikari tituluduna izan beharko du, edo, bestela, kontserbazioaren eta parke eta lorategietako lanen arloan gutxienez 5 urteko esperientzia edo prestakuntza duela egiaztatzen duena; zuzenean arduratuko da hitzartutako prestazioa behar bezala egiten dela egiaztatzeaz, koordinatzeaz eta zaintzeaz. Pertsona hori ezingo da etorkizunean subrogatu.

Era berean, egiaztatu beharko du Udaleko langileekin euskaraz harremanetan jartzeko gaitasuna duela, bai ahoz, bai idatziz (txostenak, zatiak, etab.), EGA tituluarekin edo baliokidearekin. Teknikari horrek eginkizun hauek izango ditu:

- Gutxienez astean behin bilduko da Udaleko udal-teknikariekin, lanen jarraipena egiteko. Bilera horretarako, hurrengo astean egingo diren lanak eta egindako lanak eta aurreko astean izandako gorabeherak zehaztuko dituen txostena prestatuko du. Zerbitzuaren garapenean aurkitzen dituen gorabehera eta arazo guztien berri emango du, baita bide publikoetan eta hiri-altzarietan hautematen den edozein akatsen berri ere.

Asteko txostenak langileen presentzia-kontrola jaso beharko du. Langileen oporren programa eta ordezkapen-plana aldez aurretik jakinaraziko dira, eta langileen lan-egutegia urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da, bai eta ordezkapen programagarrien plana ere, oporrak gertatu baino astebete lehenago.

- Gutxienez astean behin bilduko da Udaleko teknikariekin lanen jarraipena egiteko. Bilera horretarako, txosten bat prestatuko du, eta bertan zehaztuko ditu hurrengo astean egingo diren lanak, egindako lanak eta aurreko astean izandako gorabeherak. Zerbitzuaren garapenean aurkitzen dituen gorabehera eta anomalia guztien berri emango du, baita bide publikoetan eta hiri-altzarietan ikusten den edozein akatsen berri ere.

Asteko txostenak langileen presentzia-kontrola jaso beharko du. Langileen opor-programa eta ordezkapen-plana aurrez jakinaraziko dira, eta langileen lan-egutegia urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu beharko da, bai eta ordezkapen programagarrien plana ere, ordezkapenak egin baino astebete lehenago.

- Lorategietan urtero hobekuntzak proposatzea, abuztuaren amaiera baino lehen aurrekontuei begira balioetsita.

- Zuhaitz, zuhaixka eta sasoiko landareen beharren zerrendak prestatzea.

- Hobekuntzei edo sortzen joan daitezkeen lorezaintzako arazoei buruzko txosten teknikoak egitea.

- Lorezaintzako lanak kontrolatzea eta arautzea, lanen kalitateari eta maiztasunari dagokienez. Birereintza, ongarritze, aireztatze, tratamendu fitosanitario eta abarren beharrak definitzea.

- Esleitutako azalerak handitzeko eta/edo doitzeko txostenak egitea.

- Lazkaoko Udalaren ordezkari izatea udalerrian berdeguneak txertatzen dituzten obra berrien jarraipenean eta kontrolean.

- Txostenak egitea, udal-zerbitzu teknikoei proposatuz udalerrian berdeguneak dituzten obrak jasotzeko beharrezkoak diren harrera edo aldaketak.

LAUGARRENA.- ASEGURUAK

Pertsonalak, bestelako pertsonak edo gauzek izan ditzaketen istripuen aurrean, esleipendunari besteri eragindako kalteen erantzukizun zibileko aseguru poliza egitea eskatuko zaio; gutxieneko estaldura 600.000,00 €-koa eta, esleipena egin eta 30 eguneko epean jarriko da. Bere ardurapean egongo da lan istripuei, aurreikuspen, seguritate neurriei eta asegurantza sozialari dagokien guztia.

Eskakizun hauek betetzen dituen agiriak Udalaren esku jarri beharko ditu.

BOSTGARRENA.- INSTALAZIOAK

Lazkaoko Udalak espazio bat jarriko du langileen aldageletarako eta materialen biltegirako, kontratuari esleitutako ibilgailuak, makinak eta erremintak gordetzeko edukiera nahikoa izango duena.

SEIGARRENA.- IBILGAILUAK, MATERIALA ETA LANABESAK

Zerbitzua bete ahal izateko edozein motatako material, tresneria eta lanabesen kostua esleipendunaren kargu izango da; halaber, kontratua dirauen bitartean zerbitzua egoki emateko sor daitezkeen mantentze zein kontserbazio gastuak. Udalak lizitatzaileak zerbitzua burutzeko eskainitako materiala egokia dela iritzi behar du; hala gertatuko ez balitz, esleipendunak, bere kontura, zerbitzua egoki emateko beharrezkoa den materiala eskuratu beharko du. Tresneria beti garbi eta egoera onean eduki beharko du.

Lizitatzaileek zerbitzua emateko erabiliko dituen ibilgailuen zerrenda emango du. Lizitatzaileek eskaintzen duten material, ibilgailu eta tresneria guztia erabilpenerako egoera onean egon beharko du; bestela izanez gero, behar den egoeran ez daudenean, udal teknikoek atzera bota ditzakete eta esleipendunak ordezkatu beharra izango du.

Kontratutako zerbitzuaz aparte esleipendunak ezin izango du lorezaintza zereginetan ez den beste edozeinetan ibilgailurik erabili, ez eta trakzio mekanikodun ibilgailurik parkeetan sartu, ezinbestekoak diren kasuetan salbu, hau da: ongarri horniketa, produktuen jasotzea, lurra edo

hartxintxarra botatzea..., lan hauek kalterik sortuko ez duten ibilgailu arinak erabilita egingo da eta, beti ere, Udal Zerbitzu Teknikoen oniritzi.

Kontratuari lotu beharreko gutxieneko baliabide materialak.

Betebeharrezko izango dira honako baliabideak:

3,5 Tm-ko iraulki-kamioia + atoi bat (Etiqueta ECO).

Moztu eta biltzen duen traktore bat.

"Mulching" delakoa egiteko traktore bat, mozketa egiteko gutxieneko zabalera: 122 cm.

3 motozerra (Pertika, txikia eta handia)

3 esku-motosega (Gutxienez 2,2 kW)

2 hosto-haizagailu, gutxienez batek elektrikoa izan beharko du.

2 heskai-mozteko makina

2 soropil-mozteko makina, mozketa zabalera 54 cm.-koa.

Enkargatuak egin beharreko lan administratiboentzako baliabidebieak (PC, bulego materiala....), eta makinari txikia eta tresneria.

ZAZPIGARRENA.- ZERBITZUAREN KONTROL SISTEMAK

Kontratatutako zerbitzuak etengabe ikuskatu eta zainduko ditu Udalak. Udalak lanak behar bezala eta pleguetan ezarritako moduan egiten direla egiaztatu ahal izango du, eta langileak eta mate-riala noiznahi eta nonahi berrikusi ahal izango ditu.

Administrazioak horretarako izendatzen dituen udal-teknikariek enpresa esleipendunaren lokaletarako eta bulegoetarako sarbidea izango dute, eta behar beste datu emango zaizkie giza ekipoen eta ekipo materialen antolaketari buruz, bai eta egindako edo egin beharreko lanei buruz ere.

Era berean, egokitzat jotzen dituen jarraibideak eta zuzenketak helarazi ahal izango ditu, eta kontratista behartuta egongo da horiek betetzen direla egiaztatzeko behar diren agiri guztiak erakustera, eta, bereziki, gizarte-aseguruei, bertaratze-agiriei, lan-istripuei, aseguru-poliza eta instalazioei eta materialari dagokienez, eta, oro har, udal honen erantzukizun subsidiariorik ez izateko jarduketa guztiak ahalbidetzera.

Ikuskapen eta kontrol zorrotzak egin ahal izateko, enpresa esleipendunak betebehar hauek izango ditu:

- Astero, egindako lanen eta zerbitzuan gertatzen diren gorabehera guztien eguneroko parteak aurkeztea.
- Astero edo hilero (urte-sasoiaren eta egin beharreko zereginen arabera) lan-plan bat aurkeztea, lanen aurreikuspenak jasotzen dituzten udal-zerbitzu teknikoen jarraibideei jarraituz egina. Plan hori ahalik eta zehatzen bete beharko da.
- Urteko memoria bat aurkeztea, egindako jarduera guztiak adierazita.
- Kontrata honen zerbitzuekin lotutako txostenak, proiektuak eta azterlanak prestatzea, bai eta Lorezaintzako Zerbitzu Teknikoek agintzen dizkioten argazki-erreportajeak ere.
- Aparteko edozein gorabehera edo esku-hartze gertatu eta berehala, Udaleko Zerbitzu Teknikoari jakinaraztea.

- Enpresa esleipendunak zerbitzuari atxikitako langileen presentzia kontrolatzeko sistema bat instalatu beharko du, bai eta sarrera- eta irteera-fitxaketen sistema fidagarri bat ere, horien kontrola bermatzeko. Enpresa esleipendunak hilero emango du fitxaketei buruzko informazioa.

LAZKAOKO UDALA

ZORTZIGARRENA.- UZTEA ETA BALIOGABETZEA

Lehiaketatik aide batera uzteko arrazoietako bat izango da aurkeztutako dokumentazioa faltsua izatea.

Egoki iritziz gero, Udalak eskubidea izango du lehiaketa osorik edo zati batean esleitu gabe uzteko, egokitzat jotzen duen eremu kopururako.